ARRATZUA-UBARRUNDIAko UDALA
*(ARABA)*

AYUNTAMIENTO DE
ARRATZUA-UBARRUNDIA
*(ALAVA)*

Uribea, 12 01520 (Durana) IFK/ CIF: P-0100900-J Tlfno. : 945-299516 / Fax: 945-299602

| **VITORIA-GASTEIZEN 2018/04/20AN GERTATUTAKO INDARKERIA MATXISTA KASUAREN AURREAN ADIERAZPEN INTITUZIONALA** | **DECLARACIÓN INSTITUCIONAL ANTE EL CASO DE VIOLENCIA MACHISTA SUCEDIDO EN VITORIA-GASTEIZ EL 20/04/2018** |
| --- | --- |
| Joan den ostiralean Vitoria-Gasteizen gertatutako eraso matxistaren aurrean, Arratzua-Ubarrundiako Udalak kondena eta salaketa irmoa adierazi nahi du, eta biktimen gertukoei laguntza eta gertutasuna adierazi nahi diegu. Kasu honek tristura handia eragin digu, izan ere, M.J.B. emakume ezaguna eta maitatua zen Arratzua-Ubarrundian. | Ante la reciente agresión machista sucedida en Vitoria-Gasteiz el pasado viernes, desde el Ayuntamiento de Arratzua-Ubarrundia queremos manifestar nuestra más enérgica condena y rechazo, así como nuestro apoyo y cercanía hacia al entorno de las víctimas. Este caso nos entristece especialmente ya que M.J.B era una mujer conocida y apreciada en Arratzua-Ubarrundia. |
| Horrekin lotuta, azpimarratu nahi dugu indarkeria matxista Giza Eskubideen urraketa larri bat dela, eta baita lehenengo mailako arazo sozial bat ere, emakumeen duintasunaren eta osotasun fisiko eta moralaren aurka egiten duena. Indarkeria hau ez da ekintza isolatu zenbaitez osatua. Gure gizartea egituratzen duten jarrera esplizituen eta mezu normalizatu eta sinbolikoen sare bat da, azken helburutzat duena emakumeek gizonekiko duten menpekotasuna mantentzea, eta indarrean dagoen sistema heteropatriarkalak ezarritako mugak gainditzen dituen gorputzik, eredurik eta/edo jarrerarik ez baimentzea. | En este sentido queremos insistir en que la violencia machista es una grave vulneración de los Derechos Humanos y un problema social de primer orden que atenta contra la dignidad y la integridad física y moral de las mujeres. Esta violencia no es una acción o acciones aisladas, es un entramado de conductas explícitas, mensajes normalizados y simbólicos que estructuran nuestra sociedad con el objetivo último de mantener la subordinación de las mujeres a los hombres y de no permitir la existencia de ningún cuerpo, modelo y/o comportamientos que transgredan los límites marcados por el sistema heteropatriarcal vigente. |
| Arratzua-Ubarrundiako Udalak, emakumeen Giza Eskubideak eraginkortasunez gauzatzeko bermearen ardura duen erakunde publikoa izaki, neurriak bultzatzen jarraituko du, udal erakundeek eta oro har herritarrek edozein indarkeria matxistaren aurrean berehala eta modu erabatekoan erantzun dezaten, biktimak lehentasunez artatuak izan daitezen, | En ese sentido, el Ayuntamiento de Arratzua-Ubarrundia como institución pública responsable de garantizar el ejercicio efectivo de los Derechos Humanos de las mujeres, seguirá impulsando las medidas dirigidas a que las entidades municipales y la ciudadanía en general respondan de manera inmediata y contundente a cualquier agresión machista, |

**ARRATZUA-UBARRUNDIAko UDALA**
*(ARABA)*

**AYUNTAMIENTO DE ARRATZUA-UBARRUNDIA**
*(ALAVA)*

Uribea, 12 01520 (Durana) IFK/ CIF: P-0100900-J Tlfno. : 945-299516 / Fax: 945-299602

| | |
|---|---|
| eta emakumeek indarkeriari aurre egiteko modua emango dien eta erasotzaileen inpunitate sozialari biderik ez emateko aukera emango dien tresnak garatzeko prebentzio-jarduerak gara ditzaten.<br>Gainera, Udalak konpromisoa hartzen du ber eskumenen gauzatzea laguntzen eta lantzen jarraitzeko, indarkeria matxistarik jasaten ez duten bizitzen alde.<br>Duranan, 2018ko apirilaren 23an. | se atienda de manera prioritaria a la víctima, se desarrollen actuaciones preventivas para dotar a las mujeres de instrumentos que les permitan hacer frente a la violencia y a no permitir la impunidad social de los agresores.<br>Además, el Ayuntamiento se compromete a seguir apoyando y trabajando en el ejercicio de sus competencias, para garantizar vidas libres de violencia machista.<br>Durana, 23 de abril del 2018 |

**Fdo. / Sin.: Amagoia Sáez de Ibarra**

ARRATZUA-UBARRUNDIA-UDALA

**Euskara, kultura eta kirol arloko zinegotzi-ordezkaria**
**Concejala delegada de euskera, cultura y deportes**